

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

96/2019 Foru Agindua, martxoaren 29koa, baimentzen duena Iñaki Prusilla Muñoz jaunaren izendapena Urizaharreko Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostua bitarteko funtzionario gisa betetzeko

Urizaharreko Udalak aldundiari jakinarazi dio Foru Gobernuaren martxoaren 21eko 188/2019 Erabakiaren bidez 2018ko Lehiaketa Bateratua ebatzi ondoren lanpostua hutsik dagoela.

Hortaz, Urizaharreko Udalak ALHAOn (22 zk., 2019ko otsailaren 20koa) iragarki bat argitaratu zuen, toki administrazioko gaikuntza nazionaleko edozein funtzionariok lanpostua betetzeko eskatu ahal zezan, martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 48. artikulutik 51. artikulura jasoriko edozein eratan, baina, eskaerak egiteko epea igaro ondoren, deia egin duen udalak ez du eskaerarik jaso, zuzendaritza honetara bidaliriko espedientean egiaztatzen duenaren arabera.

Hortaz, bitarteko funtzionario bat izendatu beharra dago, gaikuntza nazionaleko toki administrazioko funtzionarioen lege araubidea arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak 53. artikuluen lehenengo apartatuan xedatutakoaren arabera:

“1. Ezinezkoa denean gordetako lanpostuak gaikuntza nazionaleko toki administrazioko funtzionarioen bidez betetzea, eta urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsi zen Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuak 10.4 artikuluan xedatutakoa gorabehera, toki korporazioek autonomia erkidegoari proposatu ahal izango diote, betiere berdintasun, merezimendu, gaitasun eta publizitate irizpideak betez, bitarteko funtzionario bat izenda dezala, zeinak A1 azpitaldera sartzeko eskatutako titulua eduki beharko baitu”

Hortaz, Urizaharreko Udalak IVAPera jo du, haren zerrendetatik hautagai bat proposa dezala eskatzeko, eta Iñaki Prusilla Muñoz jauna proposatu du aipatutako lanpostua betetzeko, A1 azpitaldera sartzeko eskatzen den titulua daukalako eta proposatutako lanpostua betetzea onartu duelako 2019ko apirilaren 2tik aurrerako ondorioekin.

Nolanahi ere, aintzat hartu behar da lanpostua betetzearen edo lanera itzultzearen ondorioei buruz aipatutako errege dekretuak 54. artikuluan xedatutakoa:

“Baldin behin-behineko edo bitarteko funtzionario batek betetzen badu lanpostua, hura lanpostutik kentzea ekarriko dute, automatikoki, honako hauek: lanpostua behin betiko betetzeak, kapitulu honetan jasotako kasuetan titularra lanera itzultzeak edo behin-behineko izendapen bat, zerbitzu eginkizunetakoa edo metaketa bidezkoa, egiteak.”

Horregatik guztiagatik, egoki jotzen da Urizaharreko Udalak egiten duen izendapen proposamena onartzea.

Euskal Autonomia Erkidegoan izendapen hori egiteko eskumena duen erakundea Arabako Foru Aldundia da, aurretik aipatu den martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak hirugarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren ondorioz.

Azaldutako guztiagatik, eta abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 40. artikulua ematen dizkidan eskumenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Iñaki Prusilla Muñoz jaunaren izendapena egitea, 2019ko apirilaren 2tik aurrerako ondorioekin, Urizaharreko Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostuan bitarteko funtzionario gisa jarduteko.

Bigarrena. Izendapen horrek iraungo du harik eta lanpostua behin betiko bete arte, hargatik eragotzi gabe lehenago edozein unetan izendapena ezeztatzea Urizaharreko Udalak eskatuta, edo lanpostutik kendu beharra horretarako legezko kausaren bat tarteko.

Hirugarrena. Foru agindu hau jakinaraztea interesdunei, Urizaharreko Udalari eta Eusko Jaurlaritzako Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari, bai eta ALHAOn argitaratzeko agintzea ere.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko martxoaren 29a

Diputatu nagusiordea eta Ekonomia Garapenaren eta

Lurralde Orekaren Saileko foru diputatua

MARÍA PILAR GARCÍA DE SALAZAR OLANO

Lurralde Orekaren zuzendaria

IÑAKI GUILLERNA SAENZ